




Trenbidea gurutzatzea

**Trenbide-inguruneetako
segurtasunari buruzko
HELDUENTZAKO gida**



EDUKIEN TAULA

Gidaren helburua	3
Hasteko, zenbait definizio	4
Baimendu gabeko trenbide-inguruneak	6
Trenetara eta haiek segurtasunarekin duten harremanari buruzko datu interesgarriak	8
Helduentzako arriskuak	10
Trenbide-inguruneetan seguru egoteko gakoak	12
Trenbide-segurtasunean duzun eginkizuna	14



GIDAREN HELBURUA

Trena garraiobide bizkor eta ekologiko bat da. Ia edonora eta erosotasun osoz joan gaitezke trenez. Hala ere, kontuan hartu behar da trenen eta tren-geltokien inguruan arriskuak daudela. Hori dela eta, funtsezkoa da tren-geltokietan eta beste trenbide-ingurune batzuetan gaudenean arrisku horiek hautematea eta segurtasunez nola jokatu jakitea.

Gida honekin, Trenbide Segurtasuneko Estatu Agentziak eragin positiboa izan nahi du biztanleen portaeretan eta ohituretan; alegia, portaera arriskutsuak saihestu nahi dira, eta trenbide-inguruneetan seguru nola egon ezagutarazi.

Hortaz, trenbide-inguruneetan erabiltzaileek izan ditzaketen istripuez ohartaraztea eta haiek muriztea da haren helburu nagusia. Zehazki, gidak segurtasunarekin erlazionatutako jardunbide egokiak zabaldu nahi ditu trenbide-inguruneetan ibili ohi diren helduen artean; adibidez, trenbide-pasaguneak eta nasen arteko gurutzaguneak egoki erabiltzea, tren-geltokietako nasetan behar bezala jokatzeko, etab.



HASTEKO, ZENBAIT DEFINIZIO

NASA

Tren-geltokietan, trenbidean zehar dagoen espaloia, zabal samarra; bidaiariak trenean sartzeko eta trenetik irteteko altuera egokia du, baita maletak eta gauzak kargatzeko eta deskargatzeko ere. Segurtasun-eremua lerro batek mugatu ohi du; normalean, horia da lerroa.



KATENARIA

Trenbidearen gainean esekitako kable-multzoa; tren elektrikoak elektrizitatez hornitzen ditu.

NASEN ARTEKO GURUTZAGUNEA

Trenaren eta tren-geltoki eta geralekuetan berariaz oinezkoak nasetara iristeko dauden ibilbideen artean dagoen maila bereko elkargunea.



TRENBIDE-PASAGUNEA

Trenbideen eta errepide edo bidearen arteko gurutzagunea; seinaleztatuta egon ohi da, eta, batzuetan, langek eta beste segurtasun-elementu batzuek babesten dute (adibidez, argiak eta soinua).

AZPIKO PASABIDEA

Trenbidea seguru gurutzatzeko tunela edo korridorea. Nasan egoten da. Normalean, kartel testudun bat, irudi bat eta beheranzko gezi bat dituen seinale batez adierazita egoten da.



GAINEKO PASABIDEA

Trenbidea seguru gurutzatzeko pasagunea edo zubia. Nasan egoten da. Normalean, kartel testudun bat, irudi bat eta goranzko gezi bat dituen seinale batez adierazita egoten da.



TRENBIDEA

Trena ibiltzeko den bi erraileko bidea. *Trabes* izeneko pieza batzuen gainean bermatzen dira errailak, eta, haiei esker, elkarrengandik distantzia berera jar daitezke. Trabesak, aldiz, harizko oinarri baten gainean kokatzen dira, *balasto* izenekoa, eta, hari esker, multzoaren zama banatzen da, eta ura iragazi.




■ BAIMENDU GABEKO TRENBIDE-INGURUNEAK

2014an, 1.074 pertsona hil ziren Europako trenbideetan (EB-28)*. Pertsona gehienak baimendu gabeko inguruneetan (% 66,9) eta trenbide-pasaguneetan (% 26,5) hil ziren. 2014an, inguruko herrialdeetako datuak kontuan hartuta (Europar Batasuna-27), Espainia 12. tokian zegoen trenbideetan eta trenbide-pasaguneetan harrapatuta hildako pertsona kopuruari dagokionez.




*Datuak: European Union Agency for Railways (2016). Railway Safety Performance in the European Union.

Espanian, arrazoi horrengatik hildakoen % 52 baimendu gabeko tokietan sartutakoak ziren; % 32, trenbide-pasaguneen erabiltzaileak; % 12, bidaiariak; eta % 4, langileak.



Trenbide-inguruneetan baimenik gabe sartzen direnek arrazoi hauengatik sartu ohi dira: bidezidor bat hartzeko;1 argazkiak ateratzeko; txartela ordaindu behar ez izateko;1 eta ekintza bandalikoak egiteko (besteak beste, lapurtzea, graffitiak edo pintadak egitea, eta eserleku, hesi, seinale, zubi eta bestelakoei kalte egitea edo haiek apurtzea). Baimendu gabeko tokietan sartzeak ondorio tragikoak ditu batzuetan. Gainera, legeak zigortu egiten du baimendu gabeko trenbide-inguruneetan sartzea. **Jendeak ezin du ibili trenbidean, eta baimendu gabeko toki batetik hura zeharkatzea arriskutsua eta legez kanpkoa da, eta zigorgarria ere bai (7.500 eurora artekoa izan daiteke isuna).**



TRENEI ETA HAIK SEGURTASUNAREKIN DUTEN HARREMANARI BURUZKO DATU INTERESGARRIAK



ABIADURA HANDIKO TREN BATZUEK 322 TONA INGURU PISATZEN DUTE; HAU DA, 260 AUTOMOBIL INGURUK ADINA.

Nasaren edo trenbidearen ondoan bagaude eta tren batek jotzen bagaitu, **agian hilko gara.**

Trenak asko pisatzen duenez, **ezin du bizkor geratu** trenbidean pertsona edo oztoporen bat badago.

160 KM/H-ko ABIADURAN DOAN TREN BATEK 1.000 METRO ERE BEHAR DITU ERABAT GELDITZEKO; HAU DA, 10 FUTBOL-ZELAI ADINAKO DISTANTZIA.

Nahiz eta tren-gidariak gu ikusi eta galgari eragin, **hainbesteko distantzia behar du erabat gelditzeko**, ezen trenak harrapatu egingo baikintuzke. Ez da automobil bat.



TREN BATZUEK 8.800 kW-eko POTENTZIA DUTE; HAU DA, 120 AUTOMOBILEK ADINAKOA.

Potentzia horri esker, **oso azkar** joan daitezke.

Katenariaren bidez, elektrizitatez hornitzen dira trenak. Korrante hori ez da inoiz itzaltzen, eta **potentzia hilgarria** du.

Ez da zertan katenaria ukitu elektrokutatzeko; **nahikoa da harengandik hurbil egotea hiltzeko edo zauri larriak jasateko arriskuan egoteko.**



ABIADURA HANDIKO TREN BATZUK 300 KM/H-ra ERE IRISTEN DIRA.

Abiadura handian doazen trenek **xurgatze-efektua eragin dezakete**, eta hutsa sortu, eta horrek trenaren azpira eraman zaitzake.

HELDUENTZAKO ARRISKUAK

Lanean ezarri dizkiguten ordutegiak edo familiako erantzukizunak betetze aldera **garaiz iristeko presaka ibiltzeak** estresatu egiten du, **jendea arriskuan jartzen da**, eta **axolagabekeria handiagoz** jardun ohi du.

Denboraren presio horren eraginez, litekeena da trenez joaten diren edo trenbide-inguruneak zeharkatu behar dituzten helduek haien segurtasunean eragin zuzena duten zenbait faktore kontuan ez hartzea. Alferrikako arriskuek (adibidez, leku desegokietatik zeharkatzea, seinaleak ez errespetatzea, edo telefono mugikorrari edo GPSari begira arreta galtzea) batzuetan estresa eragiten dute pertsonengan.

Gainera, trenbide-inguruneetan presaka ibili edo axolagabekeriak jokatuz gero, **beste pertsona batzuegan** (tartean haurrak) **eragina duten akatsak egiten dira** batzuetan.

Beste faktore batzuek istripua izateko arriskua handitzen dute. **Alkohola, drogak eta medikamentu jakin batzuk** kontsumitzeak ondorio larriak ditu, eta, batzuetan, **segurtasuna arriskuan jartzen du**. Substantzia horiek kontsumituz gero, baliteke lauso ikustea, arriskuaren pertzepzioa aldatzea eta erantzuteko gaitasuna murriztea trenbide-inguruneetan ibiltzean edo automobila, motorra edo beste ibilgailuren bat gidatzen ari zarela trenbide-pasaguneak erabiltzean edo haietara hurbiltzean.



Hirien inguruneetako mugikortasuna oso bizkor ari da aldatzen. Duela urte batzuk ia automobiletarako eta beste ibilgailu motordun batzuetarako soilik erabiltzen ziren espazioetan, orain beste ibilgailu batzuk ere egoten dira; esaterako, mugikortasun pertsonalekoak eta bizikletak. **Txirrindularien eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak** (patinete elektrikoak, segwayak, gurpil elektrikoak...) darabiltzatenen kasuan, **garrantzitsua da trenbide-inguruneetan segurtasunez nola jokatu jakitea**, beharrezkoak ez diren arriskuak saihesteko.



TRENBIDE-INGURUNEETAN SEGURU EGOTEKO GAKOAK

Kontuz ibili nasaren eta trenaren arteko hutsunearekin; erraza da estropezu egitea eta oina sartzea. Trenean errazago sartzeko, heldulekuak daude ateetan. **Sartu lasai; ez da korrika egin beharrik.**

Adi **ateak ixteko argi-seinaleari eta seinale akustikoari**; pizten denean edo soinua egiten duenean, ez igo trenera edo ez jaitsi trenetik. **Itxaron eta hartu hurrengoa.**

Gelditu nasako lerro horiaren edo segurtasun-lerroaren atzean trena erabat gelditu arte. **Nasaren ertzetik hurbil bazaude, agian trenak jo edo xurgatu egingo zaitu.**

Zerbait trenbidera erortzen bazaizu, ez saiatu inoiz hura berreskuratzen. Oso arriskutsua da. **Eskatu beti laguntza tren-geltokiko langileei.**

Tren-geltokietan eta beste trenbide-ingurune batzuetan, ibili beti oinez; **ez joan korrika**. Toki horietan arriskuak daude, eta baliteke erortzea edo norbait erorraraztea.



Tren-geltokietan, **ez eraman jantzita aurikularrak, edo jaitsi bolumena**, eta, ahal dela, ez erabili gailu elektronikorik. Horrela, adi egongo zara, eta informazio- eta ohartarazpen-mezuak entzun ahal izango dituzu. Hori are garrantzitsuagoa da trenbidea zeharkatu behar duzunean, **ezinbestekoa baita trena entzutea**.


Ez atera inoiz autoargazkirik nasaren ertzean; oso arriskutsua da.

Ez hartu bidezidorik. **Arriskutsua da trenbidea gurutzatzea**. Edozein noranzkotik, edozein trenbidetatik eta edozein unetan etor daitezke trenak.

Tren-geltokietan eta haien inguruko tokietan, **trenbidea gurutzatzeko pasabide baimenduak daude**: gainerako pasabideak, azpiko pasabideak, nasen arteko gurutzaguneak eta trenbide-pasaguneak.

Nasen arteko gurutzaguneetan eta trenbide-pasaguneetan: gelditu, begiratu bi aldeetara, entzun eta pentsatu segurua ote den gurutzatzea.

Trenak ez dira beti ordu berean pasatzen. Programatuta ez badaude ere igaro daitezke. Hori dela eta, garrantzitsua da arriskurik ez dagoen tokietan egotea. **Kontuz ibili.**



TRENBIDE-SEGURTASUNEAN DUZUN EGINKIZUNA

Ikasketan arabera, trenbide-inguruneetako **jokabide arduragabe gehienak heldu gazteek eta adinekoek izandakoak dira.**

Kontuan izan behar da **helduek oso eragin handia dutela haurrengan**; hori dela eta, batzuetan, helduek egiten duten guzti-guztia egiten dute haurrek.

Bide desegokietatik joaten edo **tren-geltokietan eta trenbide-pasaguneetan arduragabekeriak jokatzen**, besteak beste, ingurukoengandik **ikasten da**, eta belaualdi batetik bestera pasatzen.




Gurasoak, aitona-amonak eta beste heldu batzuk jokabide-eredu bihurtzen dira, eta ezagutza transmititzen dute trenbide-segurtasunaren arloan.

Gogoratu **funtsezko eginkizuna duzula seme-alabei eta beste ume batzuei tren-geltokietan eta beste toki batzuetan seguru nola egon erakusten.**



**GELDITU,
BEGIRATU,
ENTZUN,
BIZI!**



**Trenbidea
gurutzatzea**